

SAN PEDROAK

BIDASOA.HITZA.EUS

OARSOALDEA.HITZA.EUS

PASAI SAN PEDRO 2022

Argazkia: HITZA

San Pedroko Jai Batzordeak lan handia egin du aurtengoan ere jaiak aurrera ateratzeko. Izan ere, 2020an eta 2021ean festarik gabe bizi ondoren, ez da guztiz erraza izan herriko eragileak berriz ere aktibatzea. Baina bildu dira, eta jaiei egitarau bidez mamia emateaz gain, izaera eman diete. Aurten, gainera, herriaren zati garrantzitsu bati erreparatuko diote jaiak bitartean: Arrantzaleen Auzoak 70 urte bete dituelako, erakusketa berezia izango da jarrita ludotekan igande honetan. Gainera, emakumeen kirolari, arraunari zehazki, keinua egingo diote: Maialen Muguruza herriko arraunlariak botako du jaien hasierako txupina hilaren 28an.

Bestelakoan, ohikoak diren jarduera asko daude ekitaldien zerrendan: artzain eta inudeak, danborradak, LGT-BIQ+ banderaren igoera, San Pedron Bizi herri erronka, Buztiñak eta Eskamak nor baino nor, kontzertuak, kirol ekitaldiak... Aspaldiko partez, elkarrekin eta kalean egoteko aukera asko daude San Pedron.



Taxi Jaizkibel
Donibane. Antxo.
San Pedro. Trintxerpe. Lezo
943.39.14.14



PASAI - LEZO
LIZEOA
Bizi San Pedroko jaiak
EUSKARAZ

TXUPINAZOA



O. Gerendiain

«Nahiz eta zuri-urdinez jokatu, ez dut morea ahazten»

MAIALEN MUGURUZA ARRAUNLARIA

Jai Batzordeak emakumeek arraunaren munduan egindako lana aintzatetsiko du aurten. Horren ordezkari izango da Muguruza arraunlaria, hark botako baitu aurtengo San Pedroko Jaietako txupinazoa.

OLAIA GERENDIAIN

Sanpedrotarra Arraun Elkartean hartu zuen estreinakoz arraun bat eskuartean Maialen Muguruzak (San Pedro, 1994). Bateletan ekin zion arraunketari, kuadrillan, eta gaur egun Donostia Arraun Lagunak-en ari da. Iaz Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak irabazi ondoren lehen EuskoTren Liga eskuratu zuen taldeak, gero Kontxako Bandera irabaziz. Zuri-urdinez jantzita ere, morea beti bihotzean daramala aitortu du Muguruzak. Txupinazoa botako du.

Nola hasi zinen arraunean?

2006-2007 inguruan hasi nintzen, baina egia da San Pedron, azkenean, betidanik bizi izan dudala arrauna. Aita San Pedron ibili zen, baita Arraun Lagunak-en eta mundialetan ere; beraz, etxean betidanik izan dugu arrauna sartuta, eta lagunartean ere.

Gaztetan, arratsalde batean, kuadrillako neskak elkartu eta gogoan dut batek esan zidala: 'Arraunean hasiko gara, animatuko al zara?', eta hortxe hasi ginen entrenatzen, San Pedron, bateletan. 2007ko Gipuzkoako Batel Liga irabazi genuen, eta lehen bandera izan zen San Pedroko neskek eskuratzen zutena; orduan ere txupinazoa neska arraunlariek bota genuen.

Senior bihurtu arte bertan mantendu ginen. Gero, azkenean, bakoitza unibertsitatara, ni Madrilera, bestea Gasteizera... eta taldea desegin zen.

Ikusi zenuen aukera inoiz San Pedron emakumeen traineru bat sor zedin?

Gogoan dut neska dezente elkartu ginela urte batean, eta hor hasi zen apur bat

kontua, entrenamendu batzuetan Illunberek ibili ginen traineruetan... Aukera ikusi, ikusi genuen, entrenamendu batzuk egin genituelako, eta ilusioa ere bazegoen; baina tira, oso zaila zen gutxi ginelako, eta klubaren aldetik ere, egia esan, ez zegoen intentzio handirik.

Azkenean taldea desegin zen.

Bakoitzak alde batera jo zuen eta hor gelditu zen kontua. San Pedro oso txikia da eta zaila da emakume talde bat sortzea; geroz eta gehiago daude, baina orokorrean, kirol honetan, ez dago neskarik. Alde batetik bestera ibiltzen gara berak.

Esfortzu eta sakrifizio handia da; as-tean sei egunez entrenatzen da egunero bi orduz, lanarekin uztartu behar dituzunak, edo ikasketekin. Eta, gainera, *hobby* bat da, askotan dirua ere galtzen duzu. Hortaz, oso zaila da; asko gustatu behar zaizu kirol hau arraunean jarraitzeko. Gero, ere, emakumeen baldintzen aldetik badago oraindik egin beharra.

Gaur arte zein bide egin duzu?

Madrilera 2011n ikastera joan eta lau urtez ibili nintzen arraun egin gabe. Buel-tan, 2017ko denboraldian, Arraun Lagunak-en hasi nintzen patroi bezala, gero arraunlari modura jarraitzeko. Gaur arte.

2017an EuskoTrenera sailkatu ginen lehenengo aldiz, eta bertan jarraitu genuen. Gero 2018an Ondarroako Bandera, Lekeitiokoa 2019an... 2020a zaila izan genuen birusagatik, etxean ibili ginen denak entrenatzen, gero bi kasu izan ziren taldean eta bitan gelditu behar izan ginen; ez zen gure urtea izan.

2021ean eman genion buelta, aldaketa batzuk egin eta urte horretan Liga, txapelketak [Gipuzkoa eta Euskadikoak] eta Kontxako Bandera lortu genituen.

Emakumeek arraun munduan eginiko lana aintzatetsi nahi du Jai Batzordeak, eta zuk botako duzu 2022ko txupinazoa.

Bideo bat bidali zidaten hori esateko, eta asko poztu nintzen. Gogoratzen, beti, 2007an igo ginenekoa. Ni igoko naiz eta Kontxa irabazi dut, zuri-urdinez, baina herria beti eduki dut hor. Herriko jendearen animoak sentitu ditut beti, zorionak ere, eta nahiz eta zuri-urdinez jokatu, ez dut morea ahazten. Horregatik, aitortza hau herritik jasotzea oso hunkigarria da niretzat. ✕



**EGITARAU
OSOA
HEMEN**

labur.eus.oarsoagenda

HITZA



LGTBI+ BANDERA

Hilaren 28an, 20:00etan, alkateor-detzan. Aurten Maialen Muguruza arraunlari sanpedrotarrak botako du jaien txupinazoa (irakurri alboko orrialdeko elkarriketa). Horren jarraian, LGBTBI+ banderaren altxatzea egingo dute.

HITZA



HERRI TRIATLOIA

Uztailaren 1ean, 17:00etan. Aurten ere herri triatloia antolatu dute sanpedrotarrek. Kirolariak igeriketa, txirringularitza eta martxa lasterketa egin beharko dituzte helmugaratu aurretik. 16:00etan ekingo diote lehiari, eta denek bukatzean emango dituzte sariak.

Aitzol Jauregi



ASGARTHEN KONTZERTUA

Uztailaren 2an, 23:30ean, kaian. Asgarth heavy metal taldea bueltan da, duela 13 urte etendakoarekin jarraitzeko. Aurtengo jaietan etxean joko du Asier Enbil sanpedrotarrak, Ander Cañas, Unai Zabaleta, Mikel Yarza eta Etxahun Urkizu kideekin.

HITZA



INUDE ETA ARTZAINAK

Hilaren 29an eta uztailaren 3an, 12:00etan. Inude eta Artzainen San Pedroko desfileak aurten ere lur hartuko dute barrutian. Haurren txanda izango da lehena, datorren asteazkenean, 12:00etan irtengo dira. Helduen desfilea uztailaren 3an da, ordu berean hasiko da.

CIFP – BLAS DE LEZO – BHII



GOI ETA ERDI MAILAKO ZIKLOAK
NABIGAZIOA- MAKINAK - URPEKARITZA

ONGI PASA!

Eman izena telefono honetara deituz: 943 40 41 70
blasdelezo@pasaiaeskola.net



PROPOSAMENAK

HITZA



ARRANTZARA

Hilaren 25ean, 08:30ean. San Pedroko jaietako klasikoa da Arraitxiki Txapelketa. Goiz goizetik irtengo dira larunbatez badiara arrantzaleak, batzuk esna berri, besteak ohea zer den jakin gabe. Eguerdian emango dituzte sariak.

ARRANTZALEEN AUZOA

Hilaren 26an, 11:00etan. Abuztuan beteko dira 70 urte Arrantzaleen Auzoa zabaldu zutenetik. Horren harira, irudi zaharren erakusketa jarrita egongo da 11:00etatik 14:00etara ludotekan. 212 izan ziren bertan eraiki zituzten etxebizitzak.

HITZA



HITZA



DESAFIOA

Uztailaren 2an, 16:30ean. Goi-kuak, Salbiokuak, Torrekuak eta Ongi Etorriyak. Aurten ere kolorez beteko dituzte lau taldeek herriko kaleak San Pedron Bizi desafioan. Aurten nork irabaziko du? Herri giroak, ziur. Kaiaren inguruan egingo dituzte saioak.



UR, GAS ETA BERO - INSTALAZIOAK

Ondo pasa jaiak!

Herriko plaza 11 • 20110 Pasai San Pedro
axienbil@hotmail.com - tel. 618 201 450

DANBORRADAK

Hilaren 28an, 18:00etan eta 21:30ean. San Pedro Egunaren bezpera, danborraden eguna da. Txupinazoaren aurretik (18:00etan) haurren danborrada aterako da, eta jaiak ofizialki hasi berritan (21:30ean) helduen txanda izango da.

HITZA



PASAI SAN PEDRO - TRINTXERPE

San Pedro - Trintxerpeko
Batzokiak
jai zoriontsuak opa
dizkizue!